

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Helbide ezezaguna duenez, 2020/13/S548 zenbakiko espedienteko interesdunari jakinaraztea zaborren zerga erroldan alta eman zaiola

Administrazio egintza jakinaraztea honako hauei: J. A. C. U, F. P. M, M. J. L. M eta P. M. T. O.

Erabaki hau ezin izan zaienez jakinarazi interesdunei, orain duten helbidea ezezaguna baita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan agintzen duena betez, iragarki hau ALHAOn argitaratuz jakinarazten zaie tokiko gobernu batzarrak 2020ko otsailaren 20an egindako bilkuran hartutako erabakia, zeina hitzez hitz transkribatzen baita.

“2020ko otsailaren 20an egindako bilkuran, tokiko gobernu batzarrak honako erabaki hau hartu zuen, besteren artean:

Amurrioko hiri hondakin solidoak batu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren erroldaren garapena ofizioz berrikusi ostean, eta behin 2019ko lehenengo hiruhilekoko zaborren errolda onetsi eta gero, antzeman da errolda horretan ez daudela sartuta zergapekoak diren hiri lurreko zenbait ondasun higiezin.

Arabako Foru Aldundiaren katastroa hartu da erreferentziatzat zaborren erroldan sartuta ez zeuden zerga xedeei atzemateko.

Zerga egitatea aplikatu beharreko etxebizitzan, lokalen eta establezimenduen titularrak edo erabiltzaileak identifikatzeko, hiri lurreko ondasun higieziinei buruzko katastro datuak eta udal honen eskura dauden jabetza datuak eta biztanle errolda erabili dira.

Azterketa horren emaitza honako hau da:

DATUEN JATORRIA	EPIGRAFEA	AGIRIA	SUBJEKTU PASIBOA	ZERGA XEDEA
Biztanle errolda	1 epigrafea	14918038P	J. A. C. U	Armurubenta kalea 5. zk. 4. solairua B atea
OHZ	1 epigrafea	14381130N	F. P. M	Landako kalea 2. zk. 2. solairua erdiko atea
OHZ	1 epigrafea	16148565N	M. J. L. M	Aldai kalea 2. zk. 2. solairua eskuineko atea
OHZ	1 epigrafea	72235685E	P. M. T. O	Boriñaur plaza 10. zk. 4. solairua erdiko atea

Hiri hondakin solidoak batu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen duen eta egun indarrean dagoen 7. udal zerga ordenantzaren 7.2. eranskineko 2.1 artikularen arabera, “Orokorra eta nahitaezkoa da etxeetan, lokaletan, saltokietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak batu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua, arriskutsuak ez diren hondakin komertzialak eta industrietan sortzen diren etxeen antzeko hondakinak kudeatzea barne. Zerbitzu horretatik kanpo geratzen dira hondakin industrialak, etxeetakoak ez diren obretako hondakinak eta material kutsatuak, erradioaktiboak edo arriskutsuak”.

Hiri hondakin solidoak batu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen duen eta egun indarrean dagoen 7. udal zerga ordenantzaren 7.2. eranskineko 2.3 artikularen arabera, “2. artikuluko 1. apartatuan definitutako zerbitzua ematean, ordaintzeko betebeharra zerbitzua emateak sorrarazten du; izan ere, orokorra eta nahitaezkoa izanik, Amurrioko udalerrian zerbitzua ematen den gunean edo kaleetan dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularrak edota erabiltzaileak hartaz baliatzen direla jotzen da. Horiek horrela, higiezienean inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa”.

Bat etorri hiri hondakin solidoak batu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen duen 7. udal zerga ordenantzaren 2.1. eta 2.3 artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoarekin eta aplikazio orokorreko eta bereziko gainerakoekin, eta bat etorri baso eta natura inguruneko teknikari laguntzaileak egindako txostenarekin, tokiko gobernu batzarrak, aho batez,

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Zaborren udal erroldan alta ematea, 2019ko bigarren hiruhilekotik aurrera, azalpen zatiko taulan agertzen diren etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularren edo erabiltzaileen hiri lurreko ondasun higieziei.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea azalpen zatian aipatutako titular edo erabiltzaileei eta udaleko ekonomia zerbitzuei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Amurrio, 2020ko ekainaren 16a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA